



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## PRENTSARAKO DEIA

Gizarte Ekintzako Batzordea. Barikua, otsailak 15 (11:30)

### **Gizarte Ekintzako Foru Diputatuaren batzorderatzea**

Bilbon, 2013ko otsailaren 14an.

Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, Pilar Ardanza andrea, Batzar Nagusietara joango da bihar oposizino Batzarkide-Taldeek eskatuta argibideak ematera Leioako egoitza itxi izanari buruz, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (GUFÉ) aldibaterako langileei aparteko soldatea itzuli dagiela eskatzeko egindakoei buruz eta Miserikordiako Egoitzako langileen lan-egoerari buruz.

Lehenengo eta behin, Leioako GUFÉko egoitza ia modu sekretuan itxi izanari buruz Aldundiak dauen eretxia ezagutu gura dau Bildu Taldeak. Talde horrek eskatzen dau ganera, argitu dagiala zergaitik dagoan “hainbeste ohe huts” Txurdinagako adinekoen egoitzan, hain zuzen, Bilduren ustez, Aldundiak Leioako egoitzako adinekoak haraxe “pasatzea” gura dau-eta.

Beste alde batetik, Socialistas Vascos Taldeak azalpenak eskatuta daukaz, jakiteko ea GUFÉ edo IFAS erakundeak gutun bat igorri ete deuten aldibaterako langileei aparteko soldatearen zati proportzionala itzuli dagiela eskatzeko. Talde horrek dino gutunean esaten jakela ordainketa hori itzuli ez dagien langileei euren aurkako lege egintzak aurrera eroango dirala.

Azkenik, Bildu eta Socialistas Vascos Taldeek Diputatu andrearen batzorderatzea eskatuta daukie Miserikordiako Egoitzako langileen lan-egoerari buruzko argibideak emon dagizan, soldatea %10ean gitxitu jakelako 2013. urterako eta izoztu 2014 eta 2015. urteetarako. “Kontuan izanik egoitza horregaz Aldundiak 175 plaza hitzarturik dituala eta Aldundia bera egoitza horretako Administrazio-Batzarreko kide dala”, Talde biok Ardanzaren batzorderatzea eskatu dabe, azaldu dagian Aldundiak ze zerikusi izan dauen langileen soldatea murrizterakoan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## CONVOCATORIA DE PRENSA

Comisión de Acción Social. Viernes, 15 de febrero (9.30 horas)

### **Comparecencia de la diputada foral de Acción Social**

Bilbao, a 14 de febrero de 2013.

La Diputada foral de Acción Social, Pilar Ardanza, acudirá mañana a las Juntas Generales de Bizkaia para comparecer, a petición de varios grupos de la oposición, en relación al “cierre” de la residencia de Leioa, la devolución de la paga extraordinaria a los trabajadores eventuales del Instituto Foral de Asistencia (IFAS) y la situación laboral de los empleados en la residencia de la Misericordia.

En primer lugar, el grupo juntero Bildu quiere conocer la opinión de la Diputación por el cierre “semi-secreto” de la residencia pública del IFAS de Leioa. La coalición abertzale exige además explicaciones por la existencia de “tantas camas libres” en la residencia de Txurdinaga, a donde la Diputación quiere “trasladar” a los mayores del centro de la Margen Derecha.

A su vez, el grupo Socialista Vascos ha pedido que la responsable foral ofrezca explicaciones sobre la devolución de la paga extraordinaria solicitada a los trabajadores eventuales del IFAS. Según este grupo, la carta enviada por la Diputación a estos empleados anuncia “acciones legales” contra aquellos que no se avengan a la entrega de la parte proporcional de dicha paga.

Por último, los grupos Bildu y Socialistas Vascos se hacen eco de la rebaja de un 10% del sueldo de los trabajadores de la residencia de La Misericordia en el año 2013 y la congelación en el 2014 y 2015. “Teniendo en cuenta que se trata de una residencia con la que Diputación tiene concertadas 175 plazas y, además, la propia Diputación forma parte de la Junta de Administración de dicha Residencia”, ambas formaciones solicitan en su escrito la comparecencia de Pilar Ardanza, a fin de que explique “el papel” que ha jugado la Diputación en esta rebaja del sueldo de los trabajadores.